

“Idazketa ez sexistaren Frida sariak”


LEHENENGO SARIA EUSKERA MAILAN

Narrazioaren izenburua: “Berbaro”

Egilea: Iskandar Hamawy Lopategi

bihotzera ailegatu

BERBARO



Iskandar Hamawy Lopategi

Itxaropenik gabeko hitzak jaurtitzen ditu Cecillaren altzoan lo egiten duen SANYO irrati-aparailu zaharrak. Antena mugitu du egunaren beldur direnen ahotsak gardenki entzuteko. Halere, zaratak eta xuxurlak etengabe tartekatzen dira, bainuontziko zulotik behera galdu aurretik. Komuneko tazan eserita dago Cecilia, ate-kisketaz hertsirik. Bozgorailutik ateratzen diren hotsak eskuin besoaz leuntzen ditu etxeoak ez esnatzeko, nahiz eta logelatik datozen Sebastianen zurrungek lo seko dagoela adierazi. Bakaritatea ez da hain mingarria besteen zorigaitzekin alderatuz gero. Egunean zehar konplizerik ez duenak gaueko isilunetan bilatzen ditu. Familia bat izatearen zorionaz ohartarazten du seme bakarra preso duen alargunaren delak. Sebastian, Carlos eta Sandra. Aspaldi ikasi zuen posiblea dela ikusten ez zaituztenak maitatzea. Ama baten dohaina dela maitasuna eskaintzea ezerezaren truke.

Venus. 19 urte. Santurtzitik. Zertaz egingo diguzu berba?. Emeki mugitu du dila esatariaren ahots gozoa harrapatzeko, baina patata frijituren hotsa besterik ez du aditzen. Maiteminduta nago... izan dira harrapatu ahal izan dituen lehenengo hitzak, eta zoragarriak iruditu zaizkio, bera ere maitatua sentitu zen egunak etorri baitzaizkio gogora... gelako neska batekin, Eguzkirekin. Eta ikasturtea hasi zenetik berarekin emandako egunak nire bizitzako zorionsuenak izan direla jakin dezan nahi dut. Interferentziek ez dute lortzen neskaaren ahotsaren distira ezabatzea. Ahots garbia da, xuxurlatuz hitz egiten duena. Eguzki egongo al da irratsaio hau entzuten?, tartekatu du esatariak. Beno, baietz uste dut. Uhinak dira gure askatasunaren paradisu bakarrenetarikoa bat. Uhinak eta unibertitateko idazmañala, batera esertzen garela, gure hankak ukitzen direlarik. Ceciliaren masailak apur bat gorritu dira. Garai moderno hauetarako eginda ez dagoela pentsatu du.

Ezkutuan daramazue harremana?. Maitasun istorio bat etxeoandre baten lana bezain ikusezina, hausnartu du irratia sendago besarkatzen duelarik. Halabeharrez...aitak nire urrats guztiak kontrolatzen ditu: nora zoaz?, noरेकिन?... baina amarenak ere. Beno, egia esan, ama ohitu egin dela dirudi eta ez da apenas etxetik irteten. Erdi Aroan ere bazuden gatibu bizi ziren printzesak. Aitak jakingo balu, ez dut pentsatu nahi etxean sortuko litzatekeen liskarra. Nire nebak paso egiten du eta ahaliik eta denbora gehien ematen du kalean baina ama... amak asko sufrituko luke. Ama izatea eta sakrifizioa batera zetozela irakatsi zioten Ceciliari, eta isilpeko sufrimendua zela familia buru bakar baten inguruan bilduta izateko ordaindu behar zen prezioa.

nuevos al colchon

maiteminduta nago

Venus, 19 urte

Bero-bero jan

bakardeadea
ez da hain mingarria

Beraz, Venus... 19 urterekin eta dagoeneko maitasuna deskubritu duzu, ezta?. Bai... hala da. Eta zer da zuretzat maitasuna?. Etenaldi luzea sortu da elkarrizketan. Ceciliak aparailua astindu du seinalea galdu duelakoan. Venus, hor al zaude?. Badirudi moztu e... Maitasuna arrautzak lastaira eran moduko da. Entzuleak eskulin eskuaz ito egin du komentarioak eragin dion barrea. Nola?. Bai, hñevos al colchón. Ez al dakizu zer den?. Ummmm... zein gozoak! Begira, arrautza lastaira eran kroketak handia da, plater hegalarari baten itxurakoa, bere barnean ur irakinetan egindako arrautza duena. Ikusi bezain laster, liluratuta gelditzen zara, sekula ikusi duzun frijiturik handiena baita. Bero-bero jan behar duzu, hozten utziz gero grazia guztia galtzen du eta. Baina ezin diozu edonola sardexka sartu, ez. Tentu handiz hurbildu behar zara. Lehendabizi kanpoaldetik hasten zara. Bere puntuan badago izkinetako ogi birrinduek karraskatuko du. Bexamelez estaliriko zuringo zati txikiak ahoratuko dituzu, poliki-poliki. Erdigunera ailegatzeko presarik ez daukazu baina, aldi berean, irrikari zaude. Pazientzia eskatzen dizu. Zirkulua estutuz joango da eta une batean sardexka sartzeari utziko diozu, benetan inporta zaizuna ez kaltetzearren. Bi atzamarrez gorringoa babesten duen bexamel-estalkia altxatuko duzu eta, orduan bai, orduan bere bihotzera ailegatu zara. Aurrez aurre daukazu amesten zenuen saria. Gero ogia barru-barruan bustitzea besterik ez zaizu falta zure nahia asebetetzeko. Eta ziurtatzen dizut... erabat betetzen zaitu... maitasunak bezala.

Año zabalik dago Cecilia. Burua nahasita dauka. Buf!... zoragarria... baina lan handia eman behar du plater hori prestatzeak. Non jan duzu zuk holariorik?. Hori ez da lana... hori artelana da. Eta artelan guztien moduan maitasuna ere eskatzen du. Maitasun-eredu gorena da ezkaratzean, sukaldariak mañaiakoari eskaintzen diona. Horrexegatik amak, triste ikusten nauen bakoitzean, nahiz eta inoiz ez didan ezer galdetzen, arrautza lastaira eran prestatzen dit hurrengo otordurako...

Ceciliari irratia eskuetatik ihes egin zaio. Berehala altxatu da eta kisketa zabaldu du, korridorean barrena abiatzeko. Alabaren gelaiko atea bultzatuz, ohean etzanda harrapatu du, mesanotxeko lanpara piztuta, telefono mugikorra eskuan duela. Ezer esan bari Sandraren ondoan jesarri da. Burua altzoan hartuta, bere gaztaina-koloreko ile laburra laztantzeari ekin dio, begira sabaian galdurik.